

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ireki da Nafar Lansareko 85 prestakuntza-ekintzatan izena emateko epea, 1.375 plazarekin

66 ekintza Iruñean eta Iruñerrian izango dira eta Nafarroako gainerakoan beste 19ak

Asteartea, 2018.eko martxoak 6

Nafar Lansarek izena emateko epea ireki du abuztuaren 31ra arte luzatuko diren [85 prestakuntza-ekintzatan](#), 1.375 plaza inguru jarri dituelarik eskuragarri. 66 ekintza Iruñean eta Iruñerrian izango dira eta Nafarroako beste udalerrri batzuetan gainerako 19ak

Nafar Lansarek, alde batetik, 63 ikastaro eskaintzen ditu langabetuentzako lehentasunezko sarbidea duten lan-eremuetan (gordetako plazen %60a): horietatik 28 Iturrondoko Nafar Lansareko apirileko programazioan, CENIFER energia berriztagarrien eta efizientzia energetikoaren prestakuntza-zentroan eta Peralta eta Tuteran emango dira; 35 ikastaro diruz lagundutako prestakuntza-erakundeek emango dituzte, gehienek Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko bidea ematen dutenak.

Gainera, [Prestakuntza eta Enplegurako Programa Integraletako](#) (PEPI) 22 eskainiko ditu Nafar Lansarek, apirila eta maiatza artean emango direnak. Aipatu programek langabetuei zuzendutako prestakuntza, orientabidea eta segizioa uztartzen dituzte lana bilatzeko lehen fasean eta udaletxe eta prestakuntza-erakunde espezializatuek ematen dituzte. PEPI horietatik 16 modalitate espresekoak dira, 2 eta 4 hilabete arteko iraupenarekin. Horietara sarbidea egiteko, egokitako enplegu-agentziara joan beharko da eta sarbide-baldintzak bete beharko dira.

Eskaintza hau, www.empleo.navarra.es webguneko 'Prestakuntza' atalean kontsulta daitekeena, handiagotu egingo da datozen asteetan Iturrondon eta CENIFERen, prestakuntza-ekintza berriekin, eta lana daukaten pertsonentzako lehentasunezko sarbideko ikastaro-eskaintzarekin (plazen %60a).

Iruñeako eta Iruñerriko eskaintza

Iturrondon, askotarikoa da apirila eta maiatzeko eskaintza: kostuak, proiektuen kudeaketa, sare sozialak eta marka pertsonala, XXI. menderako komertzialak – marketin digitala eta salmenta kontsultiboa, metrologia industrialak, iturgintzako operazioak, ekitaldiak eta esperientziak, elikagaien maneia, ingelesa eta soldatzea. Bi ikastaro egongo dira 30 urtetik beherakoei berariaz zuzenduak, karrozeriakoa bat eta elektromekanikakoa bestea. Tuteran, Ekitaldiak eta Esperientziak ikastaroa programatuko da berriz eta, Peraltan, hizkuntza- eta matematika-gaitasun gakoei buruzko bi

ikastaro izango dira.

CENIFER energia berriztagarrien zentroan 5 dira aurreikusten diren ikastaroak: ekintzailtza berdea, AENOR energia-kudeaketako titulazioa, oinarrizko solidworks, Excel aurreratua eta sektoreko ingelesa.

Abuztuaren 31ra arte emango diren PEPIen artean, 15 Iruñean eta Iruñerrian izango dira: zurgintza, garbiketa, telearreta, eskorga, ostalaritza, logistika, soldadura, arreta soziosanitarioa, fabrikazio mekanikoa, harrera eta merkataritzako saltzailea. Lizarran, arreta soziosanitarioko PEPI bat eskainiko du Nafar Lansarek. Tafallan bezeroen arretako, kutxa-kudeaketarako eta soldadurako ikastaroak izango dira; Tuteran aldiz lau, arreta soziosanitarioa, lorezaintza eta garbiketakoak.

Erakundeen bitartez, honako jarduerak eskaintzen dira: igeriketa, sorospena, biltegiko laguntzailea, hornikuntzen kudeaketa eta kontrola, biltegien antolaketa eta gestioa, salmenta-jarduerak, administrazio-eta finantza-kudeaketa, fabrikazio mekanikoa, tabernako eta sukaldeko laguntzaileak, garbiketa, ingurumen-kudeaketa, mekanizatua (Catia, CNC eta CAM), turismo-promozioa, kontserbak eta zukuak eta arreta soziosanitarioa. Iruñerriatik kanpoko Nafar Lansareren eskaintza osoa, egun izena emateko epea irekita duten ikastaroak barne, [esteka](#) honetan kontsulta daiteke, eta baita www.empleo.navarra.es webguneko Prestakuntza atalean.